



OIARTZUNGO
UDALA



ENERGIA
eta KLIMA

OIARTZUNGO KLIMA ETA ENERGIA PLANA

EKINTZA-PLANA 2023-11-09



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA



udalsarea
2030

udalerrri jasagarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles



Proiektuaren izena: Oiartzungo Klima eta Energia Plana. Ekintza-Plana

Erakunde onuraduna: **OIARTZUNGO UDALA**

Proiektuaren idazlea: **IZADI 21 (Inguru 21, S.L.), LAIA Kooperatiba Elkarte Txikiarekin elkarlanean.**

Dokumentuaren data: 2023/11/09

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako proiektua.



OIARTZUNGO
UDALA



ENERGIA
eta KLIMA

AURKIBIDEA

1. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA	4
1.1. IKUSPEGIAREN FORMULAZIORAKO GAKOAK	4
1.2. HELMUGAK	4
2. EKINTZA-PLANA	8
2.1. NEURRIEN LABURPENA ETA ESKEMA	8
2.2. PLANAREN INPAKTU GLOBALAREN EDO AGERTOKIEN KALKULUA	18

1. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA

1.1. IKUSPEGIAREN FORMULAZIORAKO GAKOAK

Planaren helburuak lortzeko jarraitu nahi den norabidea definitzen du ikuspegi estrategikoak. Oiartzungo ikuspegiari dagokionez, 2030era begira **klimaren aldeko ekintzan** dihardu, **klima neutraltasuna** eta **erresilientzia** lortzeko bidean.

Udalerriko **energia-eraginkotasuna** sustatu nahi da, berotegi-efektuko gasak **arintzeko** asmotan etxebizitza, ekonomia-jarduera, mugikortasuna eta lehen sektore eta elikaduran **energia-aurreztuz** eta autokontsumorako energia **berriztagarrien erabilera bultzatuz**. Halaber, udal ekipamenduen energia-eraginkortasuna eta aurrezpena sustatu nahi da, eraikinen kalifikazio energetikoen plangintza aurrera eramanez.

Klima-aldaketaren aurrean **erresiliente** bihurtu nahi da lurralde, natura-ingurune, lehen sektore eta arriskuen ikuspegitik, gerta litezkeen uholde arrisku eta lehorten inpaktuetara **egokituz** eta herritarren osasuna eta segurtasuna bermatuz.

1.2. HELMUGAK

Indarrean dagoen esparru politiko eta normatiboa hartu da erreferentziazat helmugak zehazterako garaian; izan ere, esparru horrek 2030 urterako lortu beharreko **arintzearen alorreko helmuga kuantitatiboak** ditu jadanik ezarrita, bai eta **egokitzearen alorreko helmuga kualitatiboak** ere.

ARINTZEAREN ALORRA	
HELMUGA KUANTITATIBOAK	ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA
2030 urterako udalaren kontsumo energetikoa gutxienez % 35 murriztea udalak ezarritako oinarri-urtearekiko (2018 urtea).	4/2019 Legea (EAEko Jasangarritasun Energetikoaren Legea).

<p>2050 urterako udalaren kontsumo energetikoa gutxienez % 60 murriztea udalak ezarritako oinarri-urtearekiko (2018 urtea).</p>	<p>4/2019 Legea (EAEko Jasangarritasun Energetikoaren Legea).</p>
<p>2030 urterako B kalifikazioa ez duten udal eraikinen % 40ak gutxienez kalifikazio hori lortzea.</p>	<p>4/2019 Legea (EAEko Jasangarritasun Energetikoaren Legea).</p>
<p>2030 urterako udal instalazioetako sorkuntza berriztagarria tokiko administrazioaren kontsumo elektriko eta termikoaren % 32aren adinakoa izatera iristea¹ udalak ezarritako 2018 oinarri-urtearekiko.</p>	<p>Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1119 Erregelamendua (Klimaren aldeko Europako Legea)</p> <p>4/2019 Legea (EAEko Jasangarritasun Energetikoaren Legea) eta 10/2021 Legearen (Ingurumen Administrazioaren Legea) azken xedapenetatik seigarrena.</p>
<p>2030 urterako udalerriko berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez % 40 murriztea udalak ezarritako 2010 oinarri-urtearekiko.</p>	<p>Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia.</p> <p>Gipuzkoako Klima 2050.</p> <p>Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia.</p>
<p>2050 urterako udalerriko berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez % 80 murriztea udalak ezarritako 2010 oinarri-urtearekiko.</p>	<p>Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia.</p> <p>Gipuzkoako Klima 2050.</p> <p>Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren Estrategia.</p>

¹ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publiko bakoitzak, zuzenean edo energia ekoizten duten erakundeetan parte hartuz, energia berriztagarriak aprobetxatzeko hurbileko instalazioak izan beharko ditu 2030erako, Administrazio horren urteko kontsumoaren % 32ri dagokion energia sortzeko adina, aprobetxamendu termikoko nahiz elektrizitatea sortzeko sistemak barne

2050 urterako neutraltasun klimatikoa lortzea.	Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/1119 Erregelamendua (Klimaren Europar Legea).
2025 urterako hondakinen sorrera %13 murriztea 2010 urtearekiko.	7/2022 Legea (ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko estatu mailako legedia)
2030 urterako hondakinen sorrera %15 murriztea 2010 urtearekiko.	7/2022 Legea (ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko estatu mailako legedia)
2030 urterako ehun-hondakinen, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen (TEEH), altzarien eta berrerabiltzeko presta daitezkeen beste batzuen gutxienez %10 berrerabiltzea.	7/2022 Legea (ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko estatu mailako legedia)
2035 urterako ehun-hondakinen, tresna elektriko eta elektronikoen hondakinen (TEEH), altzarien eta berrerabiltzeko presta daitezkeen beste batzuen gutxienez % 15 berrerabiltzea.	7/2022 Legea (ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko estatu mailako legedia)

1. Taula: Arintzeari lotutako helmuga estrategikoak eta bakoitzari dagokion erreferentzia esparrua.

EGOKITZEAREN ALORRA	
HELMUGA KUALITATIBOAK	ERREFERENTZIAZKO ESPARRUA

Oiartzungo lurraldearen eraginkortasuna eta erresilientzia areagotzea.	Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia.
Natura-ingurunearen erresilientzia areagotzea.	Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia
Lehen sektorearen erresilientzia handitzea eta haren isurketak murriztea.	Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia
Arriskuei aurea hartzea.	Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia
Berrikuntza, hobekuntza eta ezagutzaren transferentzia bultzatzea.	Klima 2050 – Klima-aldaketaren Euskadiko Estrategia

2. Taula: Egokitzeari lotutako helmuga estrategikoak eta bakoitzari dagokion erreferentzia esparrua.


2. EKINTZA-PLANA

2.1. NEURRIEN LABURPENA ETA ESKEMA

Ekintza-Plana idatzi ahal izateko, Oiertzungo abiapuntuaren egoeraren **diagnostikotik** klima-aldaketarekin eta energiaren arloarekin zerikusia duten **datu objektiboen interpretazioa** barneratu da. Ekintza-Plana **Ildo/Lerro Estrategikoa, Programa eta Ekintza** elementuen bidez **egituratu** da, eta **guztira, 4 Ildo/Lerro Estrategikotan banatzen diren 64 ekintza barne bildu ditu.**

Oiertzungo Klima eta Energia Planeko (aurrerantzean OKEP) ekintzen banaketa Lerro Estrategikoen arabera aztertuz gero (ikus 1. Irudia), ekintza kopuru handiena 3. Ildo/Lerro Estrategikoak jasotzen du, **udal eta udalerriko sektore ezberdinetan klima-aldaketa arintzera bideratutako ekintzek (25)**. Ondoren, 1. Ildo/Lerro Estrategikoak jasotzen ditu ekintza gehien, **udalaren eredugarritasuna energia trantsizioan (16)**. Jarraian, **klima-aldaketa egokitzeari dagokion ekintzei heltzen diona (13)**. Azkenik, **udalerriko sektoreetan energia eraginkortasuna bultzatzea eta berriztagarriek erabilpena sustatzeari dagokion 2. Lerro Estrategikoak (10)**.


Ekintzen banaketa Ildo/Lerro Estrategikoen arabera



1. Irudia: Ekintzen banaketa ildo/lerro estrategikoen arabera.
Iturria: propioa.

Ekintzen banaketa atal/alorren arabera aztertuz gero (ikus 2. Irudia), ikusi da Ekintza-Planak modu bateratuan heltzen diola klima-aldaketa arintzeari eta hartara egokitzeari buruzko gaiari. **Klima-aldaketa arintzeari buruzko ekintzak gehiagoa** osatzen dute (**46**), **hartara egokitzeari buruzko ekintzek (11)** eta **governantza, sentsibilizazioa eta parte-hartzeari lotutako ekintzekin (7)** alderatuz gero.

Ekintzen banaketa atal/alorraren arabera



2. Irudia: Ekintzen banaketa atal/alorraren arabera.
Iturria: propioa.

Jarraian Oiartzungo Klima eta Energia **ekintza-planaren neurrien eskemak** aurkeztu dira. **Ekintza bakoitzaren karakterizazioa** edo ekintza bakoitzari dagokion informazio zehatza **I. Eranskinean** zehaztuko da.

Oharrak:

- Letra lodiz agertzen diren ekintzak lehenetsun altuko moduan markatu ditugu, arauen edo legeen betetzearekin zerkusia dutenak direlako.

- Gorriz agertzen diren kodeak Oarsoaldea eskualdeko II. Energia-planeko ekintzekin lotura dutenak dira.

- Udalarenak diren ekipamenduen eta instalazioen aurrezpen energetikoari eta energia berriztagarriei buruzko proposamen zehatzak "Udal energia-diagnostikoa eta ekintza-plana" dokumentuan barneratuta daude. Bertan udal energia-kudeaketari lotuta lortu beharreko helburuak eta horiek lortzera bideratutako ekintzak jasotzen dira, ezarritako oinarri-urtea 2018 urtea dela aintzat hartuz.

<p>1.- HELBURU ESTRATEGIKOA: OIARTZUNGO UDALAREN EREDUGARRITASUNA ENERGIA TRANTSIZIOAN</p>
<p>1.1.- UDAL EKIPAMENDUEN ETA INSTALAZIOEN ENERGIA ERAGINKORTASUNA ETA AURREZPENA SUSTATZEA</p>
<p>1.1.1. Udalaren titulartasuneko eraikinen, ibilgailuen eta argiteria publikoko instalazioen inbentarioaren nondik norakoak zehaztea eta inbentarioa indarrean dagoen araudiak ezartzen duen moduan osatzea. (4/2019 Legearen 11. Artikulua)</p> <p>1.1.2. Egiteke dauden 11 eraikinen kalifikazio energetikoa osatzea (4/2019 Legearen 19. Artikulua).</p> <p>1.1.3. Udal eraikin handienetan ziurtagiri energetikoak berrikustea (herri-eskolako, Elorsoro kiroldetako eta udaletxeko ziurtagiri energetikoak gutxienez) eta dokumentu horiei dagozkion moldaketak egitea.</p> <p>1.1.4. Udal eraikin guztien kalifikazio energetikoak osatutakoan, B azpitik daudenetan gutxienez kalifikazio hori lortzeko plangintza bat prestatzea, 2030 urtea baino lehen helburu hori lortzeko (4/2019 Legearen 19. eta 28. atalaren betetzea).</p> <p>1.1.5. Udal eraikin guztietan kalifikazio energetikoaren etiketa ikusgai jartzea. (4/2019 28. Artikulua)</p> <p>1.1.6. Eraikin guztietan energia auditoretzak egiteko plangintza bat definitzea, kontsumo altuena duten eraikinak lehenetsiz. (254/2020 dekretua).</p> <p>1.1.7. Elorsoro kiroldetako kanpoko piszinek eragiten duten gehiegizko energia-kontsumoa murrizteko neurriak martxan jartzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beroak ihes egin ez dezan, kanpoko piszinek beti estalita mantentzea. - Ihes egiten duen beroa berrerabili ote daitekeen aztertzea. <p>1.1.8. Elektrizitatearen kontagailu zaharkituak dauden eraikinetan kontagailuak teleneurketa-ahalmena duten kontagailuengatik ordezkatzeko (4/2019 Legearen 12. Artikulua).</p>

<p>1.1.9. Etorkizunean udalak gauzatu ditzakeen birgaitze integraleko inbertsioetan edo udal eraikin berrien kasuan, kontsumo ia nuluko eraikinak izatea bermatzea (4/2019 Legearen 20. Artikulua).</p> <p>1.1.10. Edozein ekipo, tresna, produktu edo sistema eskuratzeko beharra dagoenean, energia-eraginkortasun altuenekoa izatea bermatzea (4/2019 Legearen 18. artikulua).</p> <p>1.1.11. Eraginkortasun energetikoari eta eraikinetan energiaren erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza eskaintzea udal-langileei nahiz udal-hautetsiei.</p> <p>1.1.12. Eskualdeko energia bulegoa sustatu eta ematen dituen zerbitzuak herritarrei aditzera ematea. (6.1.2) (6.1.5)</p>
<p>1.2. UDAL EKIPAMENDUETAN ETA INSTALAZIOETAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA AREAGOTZEA</p>
<p>1.2.1. Oiartzungo zentral hidroelektrikoen azterketa egin eta etorkizunean eman beharreko pausoak baloratu.</p> <p>1.2.2. Udalak energia zein merkaturatzaileari erosten dion aztertu eta iturri berriztagarrietan jatorria duen energia erosteko/kontratatzeko pausoak eman. (4/2019 Legearen 17. Artikuluko 1. eta 2. atalak)</p> <p>1.2.3. Energia termikoa berotze-sistema jasangarrien bitartez lor daitekeen aztertu.</p> <p>1.2.4. Basoen ustiaketa jasangarriaren bidez udal eraikinetan edo herriko beste sektoreetan erabili daitezkeen baliabide energetikoen bideragarritasuna ikertu.</p>

3. Taula: 1. Helburu estrategikoa, programak eta ekintzak.

<p>2. HELBURU ESTRATEGIKOA: UDALERRIKO SEKTORE EZBERDINETAN ENERGIA ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA BERRIZTAGARRIEN ERABILPENA SUSTATZEA</p>
<p>2.1. ETXEBIZITZEN SEKTOREAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNA BULTZATZEA ETA KALTEBERATASUN ENERGETIKOAREN EGOEREI AURRE EGITEA</p>
<p>2.1.1. Etxebizitzak irizpide bioklimatikoaren eta energia-jasangarritasun irizpideen arabera eraikitzeke neurriak aztertu eta ezarri:</p>

- Udaletik etxebizitzaren eraikuntza-eskaerei erantzuten zaienean ezar ditzakeen energiaren jasagarritasunari eta klimaren babesari lotutako baldintzen inguruko azterketa egin eta horien ezarpenari buruzko hausnarketa burutu.
 - Beste udaletako esperientziak bildu (Donostiako eta Arrasateko energiaren inguruko ordenantzak, esate baterako).
- 2.1.2. Etxebizitza-erakinen birgaitzean energia-eraginkortasuna sustatu:
- Udaletik dirulaguntzak bideratzea
 - Etxebizitzak birgaitzera zuzendutako pizgarri fiskalak indartzea
 - Oarsoaldeko etxebizitza birgaitzeko zerbitzuaren berri ematea (2.3)
- 2.1.3. **Baldintza oso kaxkarretan dauden etxebizitzak hobetzeko udal laguntzak indartzea** (laguntza teknikoa zein ekonomikoa):
- Etxebizitzaren isolamendu-baldintza txarrak dituztenei bideratutako aholkularitza.
 - Halako egoeran dauden etxebizitzaren isolamendua hobetzeko laguntzen baldintzak eta jaso daitezkeen onurak berrikustea.
- 2.1.4. Oarsoaldeko Energia Bulegoak eskaintzen duen kalteberatasun-energetikoaren aurkako zerbitzua zabaltzeko eta indartzeko aukera aztertzea (zaugarritasun egoeran dauden edo egon daitezkeen herritaren sentsibilizazioa, aholkularitza, prestakuntza eta informazioa helarazteko).

2.2. EKONOMIA-JARDUERETAN ENERGIAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EGITEA ERRAZTEA

- 2.2.1. Udalerriko enpresetan eta saltokietan energia kudeaketarako tresnak eskuragarri jartzea, beraien energia-beharrak aztertzei aukerak erraztea eta irtenbide komunak bilatzea nahiz garatzen laguntzea, eskualdeko garapen agentziarekin elkarlanean. (1.2)
- 2.2.2. Oiartzungo industria sektorearen energia kontsumoa eta BEG isurpenak aztertu eta eraginkortasuna hobetzeko laguntzak eskaini Oarsoaldea garapen agentziarekin lankidetzan (4.1)
- 2.2.3. Lehen sektorearekin lotutako ekoizpena egiten duten zenbait baserritan (elikagaiak, gaztagileak, esnegileak...) energia auditoretzak egitearen bidez lehen sektorearen energia kontsumoen azterketa osatu eta nekazari eta abeltzainekin batera gastu energetiko eta ekonomikoa murrizteko neurriak adostu.
- 2.2.4. Autokontsumorako energia berriztagarriak ekoizteko sistemak martxan jartzen laguntzeko baliabide ezberdinak aztertzea eta bideragarriak direnak ezartzea (1.1.3):
- Pizgarri fiskalak (Oiartzungo fiskalitate energetikoa hobe daitezkeen aztertzea eta ordenantza fiskalei dagozkion aldaketa-egokitzak proposatzea), dirulaguntzak, etab.

<ul style="list-style-type: none">- Hirugarren sektorean eta industria-jardueretan azalera handia duten teilatu eta aparkalekuetan autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaiko instalazioen ezarpena bultzatzea.- Landa auzoetako baserrien teilatuetan autokontsumorako eguzki-energia fotovoltaiko bidez ekoizteko sistemak bultzatzea eta argiteriaren aldaketak egiteko aukera baloratzeta.- Etab. <p>2.2.5. Energia berriztagarrien arloan indarrean dauden hobari fiskalen berri ematea sektore ezberdinei (6.2.2) (6.2.4)</p> <p>2.2.6. Energia-komunitate berriztagarrien sorrerari eta horien garapenari bultzada eman: (4.4.1 industrian) (6.1.1 orokorrean)</p> <ul style="list-style-type: none">- Herritarrez osatutako energia komunitatearekin elkarlana aztertu. Teilatu publikoen erabilera eta lagapena aztertu energia berriztagarrien instalazioak bertan jar daitezkeen baloratzeko.- Oarsoaldea garapen agentziarekin batera, jarduera ekonomiko ezberdinetan energia-komunitateak osatzeari buruzko aukerak aztertu.- Oiartzundik kanpo martxan jar daitezkeen esperientzien inguruan informazioa bildu eta aztertu.- Sor daitezkeen energia-komunitateak baliatuz energiaren erosketa-partekatuak edo bestelako proiektu jasagarriak bultzatu ote daitezkeen aztertu.

4. Taula: 2. Helburu estrategikoa, programak eta ekintzak.

3. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETA ARINTZEN LAGUNTZEN DUEN HERRIA
3.1. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA SUSTATZEA
<p>3.1.1 Udal-langileen artean telelanerako aukera erraztu, joan-etorriak ekiditeko.</p> <p>3.1.2 Garraio partekatua sustatu eta saritu udaleko langileen artean.</p> <p>3.1.3 Udal ibilgailu elektrikoen kontsumoen kontrolerako kontadore zehatza ezartzea.</p> <p>3.1.4 Udalaren ibilgailu-flotaren mantenu- eta eraberritze-plangintza bat definitzea:</p> <ul style="list-style-type: none">- Garraio publikoko ibilgailuak (“Xorrola”) petrolotik eratorritako erregaiak erabiltzen ez dituztenengatik ordezkatzen joatea, ordezkatzeko beharra suertatzen denean (4/2019 legearen 22. atalaren betetzea). <p>3.1.5. Oinezko eta bizikleta bidezko joan-etorriak sustatzeko neurri posibleak aztertu eta martxan jarri:</p>

- Eskoletara bizikletaz joateari lotutakoak ekimenei sostengua eman
- Bizikletak aparkatzeko gune estaliak jartzeko tokien aukeraketa eta ezarpena.
- Bidegorri sarea osatu eta zabaldu.
- Errepide nagusietan etenik gabeko espaloiak bermatzea.
- Bizikletaren konponketa-tailerrak, trukeak, etab. ezarri.
- "Oinbusa" ekimenari bultzada eman (ikastetxeetara oinez, taldeka, joateko ekimena)
- Bizikletak eta patineteak aparkatzeko gune seguruak eta estaliak sustatu udalerriko puntu ezberdinetan, besteak beste, ondorengoetan arreta jarritz: ikastetxeetako patioak edo/eta sarrerak, enpresen guneak, etab.
- Etxean energia berriztagarriak jartzen dituenari, bizikleta elektrikoa erosteko laguntzak proposatu (mugikortasun jasangarria eta energia berriztagarriak uztartuz).

3.1.6. Motorrik gabeko ibilgailuen zerbitzua herritarrei eskaintzeko aukera ezberdinak aztertu eta bideragarriak direnak martxan jarri: (4/2019 legearen 21. atalaren betetzea)

- Bizikleta elektrikoaren erabilerarekin zerikusia duen udal ala eskualde mailako zerbitzu bat martxan jartzeko aukerak aztertu.

3.1.7. Motordun ibilgailuaren erabilera arduratsua bultzatzeko asmoz, alternatiba ezberdinak mahai gainean jarri eta horien inguruko eztabaida publikoa sustatu: (4/2019 legearen 23. Atala).

- Oartzunen ibilgailuen erabilera partekatua oinarri duen proiektua aurrera eramateko aukerak aztertu.
- Aparkaleku publikoen egungo erabileraren eta araubidearen inguruko hausnarketa egin, mugikortasun jasangarria ardatz hartuta.

3.1.8. Garraio publikoaren aldeko udal apustua sendotu:

- Egun dauden zerbitzuen maiztasuna handitzeko lan egin.
- Oartzun inguruko herriekin konektatzeko zerbitzuak zabaltzeko lan egin (Oarsoaldeko herriekin dagoen loturaz gain, beste eskualdeekin ere; hala nola, Bidasoaldea, Donostiako ospitaleak, Beterri-Buruntzaldeko herriak)

3.1.9. Hiri-mugikortasun jasangarriko plana idazteko lanak osatzea eta planeko ekintzak martxan jartzea (4/2019 legearen 24. Atala).

3.2. ELIKADURA BURUJABETZARAKO KONPROMISOA

3.1.2. Elikadura burujabetzaren alde abiarazitako ekimenekin eta dirulaguntzekin aurrera egitea, orain arteko ibilbideari eutsiz eta ekimen berriak abiaraziz:

- Herritarrak bertakoa eta ekologikoa kontsumitzearen garrantziaz jabetzeko ekintzak landu.
- Elikadura-burujabetzarekin zerikusia duten herriko eragileen arteko Elikadura Mahaia sortu.
- Ekoizpen aktibitate gehiago sustatu, frutagintza, etab. Izan ere, Oiartzunek, Oiartzungo populazioa elikatzeke, halako, 4 (barazkigintzan), 8 (frutagintzan) eta 13 (abeltzaintzan) lur kopuru du. Lur horren %4 bakarrik du horretara bideratua.

3.2.2. Abeltzaintzan ekoizpen ekologikoa pixkanaka txertatzeko prestakuntza eta laguntza eskaini bertako abeltzainei.

3.2.3. Epe motzeko zirkuituan (Oiartzunen bertan eta inguruko herrietan) Oiartzungo abeltzainen ekoizpena merkaturatzeko aukerak aztertu.

3.2.4. Lehen sektorean ekoizpenari lotutako ur-eskari handia duten establezimenduetan ura aurrezteko sistemak ezarri eraginkortasuna handitzeko.

3.2.5. Lur-maneia hobetzeari buruzko prestakuntza eskaintzea laborantza-sektoreko eragileei.

3.2.6. Oiartzungo nekazari eta abeltzainekin haur eta nerabeei zuzendutako ekimenak prestatu lehen sektorearen garrantziaz jabetzeko.

3.2.7. Urmendi haur-eskolarekin egin zen moduan, jangela kolektiboetan herrian bertan ekoiztutako produktuak txertatu ote daitezkeen aztertu eta txertatze hori bultzatu.

3.3. KLIMA BABESTEARI LOTUTAKO UDAL GOBERNANTZA ETA KUDEAKETA-EREDUA GARATZEA

3.3.1. Urtero Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Efektuko Gasen isurpenen azterketa egitea, energia eta klima-aldaketaren ekintzaren ezarpenetik aurrera isurpenen murrizketa gertatzen den behatzeko eta dagozkion neurriak aplikatzeko.

3.3.2. Udalaren eta udalerriko sektoreen Berotegi Efektuko Gasen isurpenen bilakaeraren berri ematea, bai udal barruan nahiz herri mailan.

3.3.3. Airearen kalitatean eragiten duten atmosferaren kutsatzaile nagusien jarraipena egin eta eskumena duten erakundeekin lankidetzan arituz hobekuntza-neurriak bultzatu:

- Airearen kalitatea oker dezaketen jarduerak monitorizatzeko aukerak aztertu (herrian udal jabetzakoa den Eusko Jaurlaritzaren menpeko neurketa-sareari dagokionez, Oiartzundik gertuen dagoen neurketa-puntua Lezon kokatuta dago) eta udalarena den neurketa sistema bat ezartzeko aukera baloratu.

3.3.4. Hautzaro ikastolan eta Elizalde Herri Eskola eta Institutuan klima-aldaketaren eta energia eraginkortasunaren inguruko formakuntza eta sentsibilizazio kanpainak indartzea. (2.1.) (5.1.3)

3.3.5. Udaleko web-orrian energia eta klima-aldaketari dagokion atala sortzea eta arlo horretan egiten diren jarduketan berri ematea herritarrei (sortzen diren klima-arazoan berri emateko ere balio dezake gune honek: aurreikusitako bero-boladak, airearen kalitate desegokia, uholde-arriskuak....).

3.4. EKONOMIA ZIRKULARREAN SAKONTZEA

3.4.1. Ikastetxeekin elkarlanean jangeletako janari-xahutzeari irtenbidea emateko ekimenak adostea eta martxan jartzea.

3.4.2. Herriko HORECA² arloko eragileekin batera establezimenduetan hondakinen prebentzioan sakontzeko egitasmoak garatu:

- Elikagaiak alferrik galtzea ekiditeko ekimenak tabernetan, jatetxeetan, etab.
- Plastikozko ontzien eta botilen erabilera gutxitzera bideratutakoak.
- Elikagaiak edo janaria prestatzeko eta banatzeko establezimenduekin lankidetzan elikagaien hondakinak murrizten laguntzeko neurriak adostea.

3.4.3. Herriko gainerako sektoreekin garatu daitezkeen proiektu posibleen inguruko lanketa bat abiarazi:

- Herri mailan antolatzen diren ekitaldietan hondakinen sorrera gutxitzeko eta berrerabilera bultzatzea.
- Oarsoaldea garapen agentziarekin lankidetzan industria-arloko enpresetan abiarazi daitezkeen proiektuak garatzea erraztu

3.4.4. Hiri-hondakinak sortzeagatiko tasa ezartzeko asmoz beharrezkoak diren egokitzapenak egin:

- Beharrezkoa balitz, ordenantza fiskalak egokitu
- Sortzeagatiko tasa ezarrita izan dezaketen beste udalen esperientziak aztertu

5. Taula: 3. Helburu Estrategikoa, programak eta ekintzak.

4. HELBURU ESTRATEGIKOA: KLIMA-ALDAKETAREN INPAKTUEN JARRAIPENA EGITEN DUEN ETA BEHARREZKO KONPROMISO KLIMATIKOA ERAKUSTEN DUEN HERRI ERRESILIENTEA

4.1. ARRISKUAK ANTZEMAN ETA HORIEI AURREA EGITEA

² Ostalaritza, sukaldaritza, catering arloetako establezimenduak.

- 4.1.1. Ibaiertzeko eremuetan gerta litezkeen uholdeen eragina aztertzea eta kalteberak diren eremuetan babes-elementuak sartzeara, Ura Euskal Agentziarekin lankidetzan eta indarrean dagoen ibai-uholdeei buruzko plangintzarekin koordinatuz.
- 4.1.2. 2019an udalak egindako “Elikagaien kontsumoa eta lur-ondarea” azterketatik abiatuz, azken urteetako bilakaera aztertu eta lehordeen aurrean lehen sektorea babesteko neurriak hartu.
- 4.1.3. Klima-aldaketaren ondoriozko lehordeek lehen sektorearen jardunean eragin ditzaketen kalteak zenbatetsi eta aurre egiteko neurriak diseinatzeko asmoz, eskumena duten erakundeekin elkarlana bultzatu (GFA, HAZI, laborantza-sektoreko sindikatuak, herriko nekazal-kooperatibak eta Behemendi, etab.).
- 4.1.4. Mapa termikoa egitea, freskatzeko baliagarriak diren gunek identifikatuz eta eremu negatiboak bero boladetara egokituz (plazak eta pasealekuak itzalarekin, iturriak, aire girotua duten espazioak, etab.) biztanleria kalteberarentzat baliabide gisa.
- 4.1.5. Klima-arriskuak gizarte-zerbitzuek bultzatutako politiketan txertatzea, biztanleria ahulenari arreta berezia eskainiz.
- 4.1.6. Herritarrek beroaren aurrean babesteko erabili ditzaketen udal eraikinak aukeratu, ondorengo ezaugarriak betetzen dituztenak: doako sarrera, irisgarritasun egokia, baliabideak izatea (atsedenlekua, ura...) eta konfort termikoa eskaintzea (<26°C). (Manuel Lekuona biblioteca eta Elorsoro Kirolegia, esaterako).
- 4.1.7. Parke naturala eta Kontserbazio Bereziko Eremua den Aiako Harria parkeak klima-aldaketaren aurrean duen arriskua aztertzeko eta babes neurriak ezartzeko beharrezko lankidetzak-sareak bultzatu, eskumena duten erakundeekin.

4.2. UDALERRIAREN ERRESILIENTZIA HANDITZEA

- 4.2.1. Udalerriko parke eta lorategiak klima-behar berrietara egokitu:
 - Iturri kopurua handitu.
 - Itzalguneetan atsedenerako gunek gehitu.
 - Landatzen diren espezieen ureztatze beharra eta jasan ditzaketen tenperaturak kontuan izan.
- 4.2.2. Lanbarren industria gunea naturalizatzeko edo berdatzeko proposamenak landu (lorategiak, estalkiak, etab.).
- 4.2.3. Drainatze Jasangarriko Sistemaren bat ezartzeko proiektu pilotua abiarazi.

4.2.4. Oiartzungo udalerrriak duen azpiegitura berdea sendotzen jarraitzeko udal eskumenen araberako estrategia bat landu, besteak beste, hiri-plangintzan aintzat hartzeko.

4.3. KLIMA-ALDAKETAREN GAIAN UDAL BARNEKO PARTAIDETZA ZEIN HERRITARREN PARTE-HARTZEA AKTIBATU

4.3.1. Klimaren aldeko gobernantza (plangintza eta ondorengo kudeaketa) eraginkorra izateko udal-egitura aproposa landu.

4.3.2. Herritarrak klima-aldaketari lotutako udal-politiketan bidelagun izateko mekanismoak aztertu eta bideragarriak direnak ezarri.

6. Taula: 4. Helburu Estrategikoa, programak eta ekintzak.

2.2. PLANAREN INPAKTU GLOBALAREN KALKULUA

OKEPren **neurrien irismena nahikoa** izan behar da formulazio estrategikoan adierazitako **2030 urterako** horizontean **klima-aldaketa arintzeari lotutako helmuga kuantitatibo** hauek lortzeko:

- **Udalerriko BEG isurketak % 40 murriztu** ahal izateko 2010 oinarri-urtearekiko.
- **Udalaren kontsumo energetikoa % 35 murriztu** ahal izateko 2018 oinarri-urtearekiko.
- **Udal energia sorkuntza berriztagarria % 32 izateko** 2018 oinarri-urtearekiko.

Helmuga kuantitatiboak aztertzerako garaian lau urrats jarraitu dira:

- Erreferentziako oinarritzko urtea ezartzea.
- 2030 urterako lortu beharreko isurketa-helburua, energia-kontsumo helburua eta sorkuntza berriztagarri-helburua kalkulatzeko.
- Joeren agertokia formulatzea (plana egin ezeko egoera formulatzea).
- OKEP neurrien ekarpena kalkulatzeko.


1. Udalerriko berotegi-efektuko gasen isurketak gutxienez % 40 murrizteko helburuaren betetze-mailaren balantzea

Erreferentziako oinarrizko urtea

Udalerriko sektoreen azterketan **erreferentziako oinarrizko urtea 2010** hartu da (informazioa eskura dagoen lehenengo urtea baita), eta urte horretan **udalerriko berotegi-efektuko gasen isurien masa 85.676 tona CO₂ baliokide** (aurrerantzean tCO₂b) izan zen. Udalerriko BEG isurketen azken datua 2019 urtekoa da eta isurketa-helburua 2030 urtea izan da.

2030 urteerako lortu beharreko isurketa-helburua

Klima-aldaketaren aurkako Euskadiko Estrategian eta Gipuzkoako Klima 2050 Estrategian ezarritakoaren arabera, **2030erako udalerriko BEG isuriak oinarri urtearekiko % 40 murriztu behar dira**. Eskakizun honi erantzuna emanez, Oiartzungo udalerriko sektoreek **2030 urterako helburutzat hartzen den berotegi-efektuko gasen isuriak gehienez ere 51.405,6 tCO₂b-koa izan beharko luke**.




1. Grafikoa: Oiartzungo udalerriko BEG isurketen bilakaera eta proiektzioak.

Iturria: Udalsarea 2030

Jarraian, 2010 eta 2019 urte artean Oiertzunen kokatutako sektore ezberdinen berotegi-efektuko gasen isurien bilakaera aztertu da, hau da, urte batetik besterako isurien gorabeherak aztertu dira (ikus 2. grafikoa). **Oro har, 2010-2019 bilakaera historikoan, isuriek % 2,6ko igoera izan dute, eta urtez urte, % 0,3ko igoera.**

OIARTZUNGO UDALERRIKO BEG ISURIEN BILAKAERA URTEZ URTE (2010-2019)



2. Grafikoa: Oiertzungo udalerriko BEG isurien bilakaera urtez urte (2010-2019).

Iturria: Udalsarea 2030


Aztertutako bilakaera historikoa aintzat harturik eta oinarrizko urtea (2010) erreferentziazat hartua, **2019tik 2030 urtera bitartean, urtez urte Oiertzungo udalerriko isuriak % 3,8 murriztu beharko lirateke 2030an gutxienez % 40ko murrizketara heldu ahal izateko.**

2030 urterako joeraren agertokia (OKEP burutu ezean)

Klima eta Energiari buruzko Plana burutu ezean, 2030 urterako Oiertzungo udalerriko sektoreen BEG isurketen joera-agertokiaren estimazioa aztertu da. Joera-agertokia lortzeko, lehenik eta behin **isurketa historiakoak aztertu dira (2010-2019)** udalerriko **hainbat aldagai sozioekonomiko kontuan hartuz: Barne Produktu Gordina (BPG) eta biztanleria**. Herrialde bateko bilakaera ekonomikoa aztertzerako garaian BPG aldagaia erabili ohi da, eta aldi berean, BPGaren gorabeherak harreman zuzena dute berotegi-

efektuko gasen isurietan. Ondorioz, jarduera ekonomikoa haztearekin batera BEG isuriak areagotu egin ohi dira eta biztanleriaren bilakaerak ere zeresan handia du BEG isurietan. Oiartzungo kasuan BEG isurien igoeraren joera hau bete da.

Hurrengo grafikoan Oiartzungo BPGaren, biztanleriaren eta berotegi-efektuko gasen isurien bilakaera aztertu da 2010-2019 epealdi historikoan. Aztertutako hiru adierazleek bilakaera gorakorra izan dute eta **berotegi-efektuko gasen isurien igoera % 2,6koa izan da.**



3. Grafikoa: Oiartzungo BPG eta biztanleriaren erlazio udalerriko BEG isuriek (2010-2019).


Iturria: Udalsarea 2030 eta Eustat.

Oharra: 2011 eta 2013ko BPG datuak falta dira.

Isurketa historiakoak (2010-2019) bilakaera gorakorra izan du eta honek BEG isurien murrizketan aurrera egiten ari ez garela adierazi nahi du. Martxa honetan jarraituz gero eta Oiartzungo BEG isurketen **joera-agertokiarekin (plana egin ezeko agertokia)** bat eginik, **2030 urterako Oiartzunen 90.569,3 tCO₂b-koa izango litzateke berotegi-efektuko gasen isurien estimazioa** (2030 urterako proiektatutako isuri-helburua gainditzen du), baina aurretik aipatu bezala, 51.405,6 tCO₂b izan beharko litzateke gehienez ere 2030 urtean udalerrri mailan isuri daitekeen berotegi efektuko gasen zenbatekoa.

2030 urterako OKEPeko neurrien ekarpena berotegi-efektuko gasen isurketen murrizketan

OKEP bidez murriztu beharreko BEG isurketak definitzeko, alde batetik, planik egin ezean isurketen joera-agertokia, eta bestetik, planaren bidez 2030 urterako lortu beharreko isurketa-helburua azertu dira, bien arteko diferentziak islatzen baitu OKEPren ekarpena nolakoa izango den. Hortaz, **plana martxan jartzearen bidez 2030 urterako isurketa-helburua lortzeko udalerriko isurketen murrizketa 39.163,7 tCO₂b-koa izango litzateke.**



4. Grafikoa: 2030 urterako OKEP neurrien ekarpena udalerriko BEG isurien murrizketan.

Iturria: Udalsarea 2030 eta Eustat.

2. Udalaren kontsumo energetikoa gutxienez % 35 murrizteko helburuaren betetze-mailaren balantzea


Erreferentziako oinarritzko urtea

Azterketa honetarako **erreferentzia urtea 2018** finkatu da (EAEko Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak horrela zehazten baitu eta udal energia kontsumo eta

isurien diagnosiko azterketa 2018 urtetik aurrera egin baita) **eta urte horretan Udalaren energia-kontsumoa 4.193.546 kWh-koa** izan zen. 2019ko datuen bidez eguneratutako azken kontsumo-energetikoa islatu da (2020 urtea pandemia urtea izanik ez da aintzat hartu, eta 2021 eta 2022 urteko datu eguneraturik ez du udalak diagnostikoaren idazketa-fasean).

2030erako lortu beharreko energia-kontsumoaren helburua

EAEko Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legeak ezartzen duen udal energia-kontsumoa 2030erako % 35 murrizteko eskakizunari erantzuna emanez, erreferentzia urtea (2018) aintzat hartuta, **2030erako Oiartzungo Udalak** murriztu beharreko energia-kontsumoa 1.502.983,02 kWh-koa izango litzateke, eta ondorioz, **2030erako gutxienez 2.725.804,9 kWh murriztu beharko litzateke udal jarduerari lotutako energiaren kontsumoa.**



5. Grafikoa: Oiartzungo Udaleko energia-kontsumoaren bilakaera eta proiektzioak.

Iturria: Udalsarea 2030

*Ezin izan da energia-kontsumoan 2030 urterako joera agertokia (OKEP burutu ezean) eta OKEP neurrien ekarpena kalkulatu, datu historiko gabezia dela eta (udal kontsumo energetikoan aztertutako bilakaera 2018-2019 izan da) ezin izan baita aurreikuspen fidagarririk egin.

3. Udal instalazioetako kontsumo elektriko eta termikoaren sorkuntza berriztagarria gutxienez % 32koa izateko helburuaren betetze-mailaren balantzea

Erreferentziako oinarrizko urtea


Udalaren kontsumo energetikoaren azterketarekin egin den moduan, udal instalazioetako sorkuntza berriztagarriko azterketa honetarako **ere erreferentziako oinarrizko urte bezala 2018 finkatu da** eta urte horretan udal energia-kontsumoa **4.193.546 kWh-koa** izan zen. 2019 urtearen eguneratutako azken kontsumo-energetikoko urtea islatu da eta sorkuntza berriztagarriko helburua 2030 urterako zehaztu da.

2030erako lortu beharreko energia berriztagarri sorkuntza helburua

2030 urterako ezarritako beste hobekuntza helmugetako bat **udal instalazioetako sorkuntza berriztagarria** tokiko administrazioaren **kontsumo energetikoaren % 32aren** (EAEko Jasangarritasun Energetikoaren 4/2019 Legea) **adinakoa izatea iristea** da, erreferentziako oinarrizko urtearekiko (2018).

2030erako helburua lortzeko asmotan, udal instalazioetan sortu beharreko energia berriztagarria gutxienez 1.341.934,7 kWh-koa izan beharko luke, erreferentziako oinarrizko urtearekiko.

OIARTZUNGO UDALEKO SORKUNTZA BERRIZTAGARRIAREN PROIEKZIOA




6. Grafikoa: Oiartzungo Udaleko sorkuntza berriztagarriaren proiektzioa.

Iturria: Udalsarea 2030

Nabarmendu behar da, **Oiartzungo Udalak 2018 urtearen aurretik energia berriztagarriak ezartzeko pausoak emanak zituela**, besteak beste, **Urmendi haur eskolan berokuntzarako biomasa instalazioaren bidez**. Oinarrizko urtean Udal jarduerari lotutako **energia kontsumoaren 96.196 kWh energia berriztagarrietatik eratorri zen.**

OIARTZUNGO UDALEKO ENERGIA KONTSUMOA ETA SORKUNTZA BERRIZTAGARRIAREN PROIEKZIOA



7. Grafikoa: Oiartzungo Udaleko energia kontsumoa eta sorkuntza berriztagarria (2018 eta 2030)

Iturria: Udalsarea 2030

*Energia-kontsumoaren gisan, energia berriztagarrian ere ezin izan da 2030 urterako joera agertokia (OKEP burutu ezean) eta OKEP neurrien ekarpena kalkulatu, datu historiko gabezia dela eta (udal energia sorkuntza 2018 urtean hasi zen) ezin izan baita aurreikuspen fidagarriarik egin.

ERANSKINA I:

Dokumentu honetan jasotzen diren zenbait ekintzen inguruko hainbat argibide:

- 1) **“Eraikin” bezala zer kontsideratzen den:** 4/2019 Legeak ezartzen du (254/2020 Dekretua, 4/2019 Legearen garapenerako dekretua da, eta dekretu horrek ez du definizioa ematen, 4/2019 Legeak dagoeneko ematen duelako), 4. Artikuluan (“definizioak”):**“Sabaia eta hormak dituen eraikuntza, non energia erabiltzen den barruko giroa egokitzeko; bizitegi-erabileretarako nahiz zerbitzuak emateko erabil daiteke, eta eraikin oso bat edo eraikin baten zatiak izan daitezke, baldin eta zati horiek berezita erabiltzeko diseinatu edo moldatu badira.”**

Ziurtagiri energetikoen prozedura arautzen duen 390/2021 Errege Dekretuak modu orokorragoan definitzen du: **Sabaia eta hormak dituen eraikuntza, barruko giroa egokitzeko energia erabiltzen duena.**

- 2) **254/2020 Dekretuak, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak garatzen eta zehazten ditu 4/2019 Legearen zenbait atal.** Horietako bat eraikinen eta instalazioen energia-auditoretzei lotuta dago: 4/2019 Legeak dio 70 kW potentzia termikoa baino handiago duten eraikin publikoek izan behar dutela auditoretza energetikoa eta 254/2020 Dekretuaren 19. Artikuluko 7. Atalak hau ezartzen du: “2021eko martxoaren 1a baino lehenago, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren eraikin eta instalazio guztiek energia-auditoretza egina izango dute.”. Baina definizioen atalean “EAEko sektore publiko” moduan soilik hartzen dira Eusko Jaurlaritzaren bera eta bere menpeko erakunde autonomoak, sozietate publikoak, fundazioak, etab. Hau da, udalen kasuan derrigorrezkoa dena 70 kW potentzia termikoa baino handiago duten eraikin publikoek auditoretza energetikoa izatea da. Oiartzungo energia eta klimaren tokiko planean, dena den, iruditzen zaigu egokia litzatekeela 4/2019 Legeak dioena baina haratago joatea eta beraz, bileran banatu genizuen dokumentuko **4. Ekintza mantenduko genuke** (“Udal eraikin guztien energia auditoretzak egitea” **baina horrela moldatuta: “Udal eraikin guztien energia-auditoretzak egiteko plangintza bat definitzea, kontsumo altuena duten eraikinak lehenetsiz.”**).

- 3) **Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenak ondorengoei aplikatzen zaizkie** (25/2019 Dekretua eta 390/2021 Errege Dekretua):

25/2019 Dekretuak hauek aipatzen ditu:

- Eraikin berriak
- Lehendik zeuden 1.000 m² tik gorako azalera erabilgarriko eraikinen aldaketa, eraberritze edo birgaitzeei, egoera hauetakoren bat gertatzen denean: a) Eraikinaren itxituren % 25 baino gehiago berritzea, edo b) Bertan egiten den jardueraren erabilera edo intentsitatea aldatzea eta horrek kalifikazio energetikoaren mailan eragina izatea.
- Lehendik zeuden eraikinei edo eraikin-zatiei, saldu edo alokatuko direnei, betiere ez badaukate indarrean dagoen Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiririk.
- Lehendik zeuden eraikinei edo eraikin-zatiei, baldin eta aginte publikoren batek haietan 250 m² tik gorako azalera erabilgarria okupatzen bada eta jendea maiz joaten bada bertara.

390/2021 Errege Dekretuak ondorengoak zehazten ditu:

- Eraikin berriak.
- Maizter berri bati saldu edo alokatzen zaizkion eraikinak edo eraikin-zatiak.
- Administrazio publiko batenak diren edo administrazio publiko batek okupatzen dituen eraikinak edo eraikin-zatiak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.3 artikuluan definitutakoak, baldin eta 250 m²tik gorako azalera erabilgarria badute guztira.
- Eraberritzeak edo handitzeak egiten diren eraikinak edo eraikin-zatiak, baldin eta baldintza hauetakoren bat betetzen badute:
 1. Instalazio termikoen proiektu bat egiteko edo aldatzeko behar diren instalazio termikoak ordeztzea, instalatzea edo berritzea, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuak onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 2. Eraikinaren azken inguratzaile termikoaren azalera osoaren % 25 baino gehiagoko esku-hartzea.
 3. Esku hartzen den erabilera-unitatearen edo -unitateen azalera edo bolumen eraikia % 10 baino gehiago handitzea, azalera erabilgarri osoa 50 m² baino handiagoa denean.

- Eraikinaren Ikuskapen Teknikoa edo ikuskapen baliokidea nahitaez egin behar duten eraikinak.
- 500 m² baino gehiagoko azalera erabilgarria duten eraikinak edo eraikin-zatiak, honako erabilera hauetarako:
 - Administratiboa
 - Osasungintza
 - Merkataritza
 - Egoitza publikoa: hotelak, ostatuak, egoitzak, pentsioak, turismo-etxeak eta antzerakoak.
 - Hezkuntza
 - Kulturala: antzerkiak, zineak, museoak, auditorioak, hitzaldietarako eraikinak, erakusketa-aretoak, liburutegiak eta antzekoak.
 - Aisia-jarduerak: kasinoak, jolas-aretoak, dantzalekuak, diskotekak eta antzekoak.
 - Tabernak, jatetxeak, kafetegiak eta antzerakoak.
 - Pertsonen garraioari lotutakoak: estazioak, aireportuak eta antzekoak.
 - Kirolari lotutakoak: gimnasioak, kiroldegiak eta antzekoak.
 - Kultu-lekuak, erlijio-erabilerak eta antzekoak.

Ziurtapena egitetik salbuetsitako kasuak 390/2021 Errege Dekretuaren 2.2. artikuluan eta 1.3.h) artikuluan zehazten dira eta hauek dira:

- **Ofizialki babestutako eraikinak, deklaraturako ingurune baten parte direlako edo arkitektura- edo historia-balio berezia dutelako, baldin eta energia-eraginkortasuna hobetzeko edozein jarduerak haren izaera edo itxura modu onartezinean aldatzen badu, eta babes ofiziala ematen duen agintaritzak zehazten baditu aldaezinak diren elementuak.**
- **Bi urteko edo gutxiagoko erabilera aurreikusia duten behin-behineko eraikuntzak.**
- Industria-eraikinak, defentsakoak eta bizitegikoak ez diren nekazaritzako eraikinak, edo horien zatiak, energia-eskari txikikoak. Erosotasun-baldintza termikoak bermatu behar ez dituzten eremuak, hala nola tailer

eta prozesu industrialetarako erabiltzen direnak, energia-eskari txikikotzat hartuko dira.

- **50 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten eraikin isolatuak edo eraikin zati isolatuak.**
- Eraberritze garrantzitsuak egiteko edo eraisteko erosten diren eraikinak (erreforma/eraberritze garrantzitsu moduan zer jotzen den Errege Dekretuaren 3.1. artikuluko d) hizkian zehazten da). Eraikin horiek salbuetsita egongo dira 10. artikulua araberako lehendik dagoen eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria lortzetik, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, 9. artikulua betetzea eraberritzeari ekin ondoren, 3.1 artikulua d) idatz-zatian adierazitakoaren arabera.

Salbuespen horiei 10/2021 Legearen Azken Xedapenetako Seigarrenak dioen hau ere gehitu behar zaio:

“Eraikinen energia-kontsumoak ezagutzeko, kontrolatzeko eta murrizteko, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen titulartasuneko eraikin guztiek Euskadiko Efizientzia Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroan behar bezala inskribatutako ziurtagiri energetikoa eduki behar dute, 2022ko abenduaren 21a baino lehen.

Betebehar horretatik kanpo daude 50 m²-tik beherako azalera erabilgarria duten isolatutako eraikin edo eraikin-zatiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriari eta ziurtagiriaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzko otsailaren 26ko 25/2019 Dekretuaren 2.3 artikuluan aipatzen diren eraikinak.”



OIARTZUNGO
UDALA



ENERGIA
eta KLIMA

ERANSKINA II:

Dokumentu honetan aipatu den araudiaren erreferentziak:

- [4/2019 Legea](#), EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa (oharra: [10/2021 Legeak](#), Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, Azken Xedapenetako Bigarrenaren bidez eta batez ere Azken Xedapenetako Seigarrenaren bidez, 4/2019 Legearen zenbait artikulua aldatu zituen).
- 254/2020 Dekretua, EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2020/11/2004947e.pdf>
- 25/2019 Dekretua, EAeko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2019/03/1901272e.pdf>
- Eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura ezartzen duen 390/2021 Errege Dekretua (<https://www.boe.es/buscar/pdf/2021/BOE-A-2021-9176-consolidado.pdf>).

